



Andoaino Udala

2020KO UDAL EGUTEGIARAKO ARGAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA

Datorren asteartean, abenduak 3, arratsaldeko zazpiretan, 2020 urterako Udal Egutegia osatzeko argazki lehiaketaren sari banaketaren ekitaldia ospatuko da Udal Artxibo berrian (Pio Baroja kalea 1, azpisotoa, Ambrosia Olabide eraikinaren behekaldean).

Epaimahaia osatu duten Txitxu Ruiz, lehendakari moduan, eta Teresa Santana zinegotziak, gehi Itxaso Mendiluze eta Eduardo Ulanga, argazkigintzan adituak bezala eta Karmele Otaegi, Udal Artxibaria, Mainer Lainez alkatearekin batera, irabazleei sariak emateko arduradunak izango dira. (100 euro argazki saridun bakoitzeko).

Irabazleak, gogoratu dezagun, hauxek dira:

- 1.- Urtarrila: Javier Dávila Muñoz, “Kolore eta lerroekin jolasean”
- 2.- Otsaila: Jose Angel Amuchastegui Esnaola, “Bastero”
- 3.- Martxoa: Xabier Huitzi Belamendia, “Eraisqueta”
- 4.- Apirila: Alain Patino Dominguez, “Presa Olabeiri”
- 5.- Maiatza: Margarita Oyarzun Yurrita, “Laborde”
- 6.- Ekaina: Itziar Gutierrez Fernández, “Argi sarrerak”
- 7.- Uztaila: Jose Angel Amuchastegui Esnaola, “La casa roja”
- 8.- Abuztua: Javier Dávila Muñoz, “Izarretarantz atea”
- 9.- Iraila: Xabier Alkorta Begiristain, “Bastero”
- 10.- Urria: Carlos Sanchez Patino, “Movimiento en pausa”
- 11.- Azaroa: Aitor Alkain Goikoetxea, “Apaizaren begietan”
- 12.- Abendua: Gema Conde Urruzola, “Negu txuriak”

Ekitaldi honetan bertan, datorren urterako lehiaketaren gaia ezagutzera emango da.

Egutegiak, **abenduaren 16tik** aurrera banatuko dira Atarian, eta urtero bezala bi ale pertsona bakoitzeko emango dira.